Lutxana auzoko elikagaien bankua, Bilbon. MARISOL RAMIREZ/ FOKU

Gizarte eskaerak, gora

Gizarte zerbitzuetako eskaerek gora egin dute pandemiaren ondorioz; lehen beharrik ez zutenen artera ere hedatu dira • Ikerketa bat egin dute

Maria Ortega Zubiate

COVID-19aren pandemiak gizarte zerbitzuetara jotzen duen jende kopurua «nabarmen areagotu» duela ondorioztatu du EHU Euskal Herriko Unibertsitateak beste hainbat unibertsitaterekin egin duen ikerketa batean. Erabiltzaile berrien artean aniztasuna handia dela esan dute, aurretiaz behar egoeran ez zegoen jendeak ere eskatu baitu laguntza orain. Gizarte zerbitzuen ohiko erabiltzaileen kasuan, berriz, egoerak okerrera egin duela ondorioztatu dute. Bestalde, zerbitzuetako langileen artean «nekea» nabaria dela ere agerian utzi dute ikerketan. Gainera, ez dute hobekuntzarik iragarri epe laburrerako: neguan egoerak okerrera egingo duen susmoa dute, negozio gehiago ixteko arriskua baitago.

Balear Uharteetako Unibertsitatearekin (Herrialde Katalanak), eta Espainiako hainbatekin egin dute azterlana EHUko ikertzaileek: Madrilgo Konplutentsea, Salamancako Unibertsitatea eta Zaragozakoa. EHUk gizarte zerbitzuen 52 zentrotako langileak elkarrizketatuta osatu du bere partea. Zentroak autonomia erkidegoen eta udalen esku egon daitezke, eta, orotara, sei autonomia erkidegotako egoera aztertu nahi izan dute, alderatu ahal izateko. Andaluziako, Aragoiko, Balearretako, Gaztela eta Leongo eta Madrilgo autonomia erkidegoetan eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan egin dute ikerketa, landa zein hiri eremuan. Bost unibertsitateek elkarrekin egiten duten bigarren lana da. *Gizarte zerbitzuak eta pandemia: eskaera eta erronka gehiago konplexutasunean* izena du, eta 2020ko irail eta azaro arteko datuak jaso dituzte bertan. Aurretik, uztail eta irail arteko egoera aztertu zuten.

Askotariko erabiltzaileak

Txostenak ondorio argia atera du egindako elkarrizketa guztietatik: pandemiak gizarte zerbitzuetako egoera okertu du, jende gehiagok jo baitu zerbitzu eske. Lehen laguntza beharrean ez zeudenek ere jo dute gizarte zerbitzuetara, eta lehendik erabiltzaileak zirenen beharrak areagotu egin dira. Horiek horrela, erabiltzaileak askotarikoak direla esan dute; kontratu ezegonkorrak dituzten pertsonak, diru sarrerarik ez duten gurasoak, eta «pandemiak eragindako gorabehera emozionalak» dituztenak. Heterogeneotasun horretan, ordea, «antzeko beharrizanak» identifikatu dituzte, oro har, kasu askotan. Erabiltzaileen egoera soilik ez, arloko langileena ere okertu dela azaldu dute; egoerak «gainezka» egin diela kontatu dute. Izan ere, baliabide falta izateaz gain, aurrez aurreko zerbitzuak bertan behera uzteak beren lana zaildu duela salatu dute. Ohartarazi dute arreta telematikoa emateak ondorioak ekar ditzakeela; ikuskatze faltagatik kasuak ez jakinaraztea, besteak beste.

Gehitu dute langileek martxotik hona «gehiegizko esfortzua» egin dutela; salatu dutenez, hilabeteotan izandako presioak «higatu egin ditu profesionalak, dituzten inplikazio eta erantzukizun maila altuengatik». Adierazi dute egoerari ez diotela bilakaera positiborik ikusten luze gabe, eta horrek are gehiago kezkatzen dituela. «Osasun sistemak eta gizarte zerbitzuek jasan duten egoerak kezkatu eta nekatu egiten ditu langileak. Gainera, aurreikusi dute egoerak txarrera egingo duela, eta ez dakite nola egin aurre heltzear den krisi sozialari», azaldu dute ikerlariek. Egoeraren alde positibo bat azpimarratu dute: behar egoeran dauden familiek gizarte zerbitzuetara jotzeko «lotsa» galdu dute. «Jendea urratsa egitera ausartu da».

Astelehenean hasiko dituzte eskolak Nafarroan, aurrez aurre %100ean

IRUÑEA • Astelehenean, hilaren 11n, izango dute oporren osteko lehen eskola eguna Nafarroan. Eskolak aurrez aurrekoak izango dira ziklo guztietan, eta ikasturterako aurreikusitako higiene neurriak eta protokoloak mantenduko dituzte, Karlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak esan duenez. «Neurri guztiak» betetzeko eskatu die ikastetxeei.

Charles Michel Europar Kontseiluko lehendakaria. TIAGO PETINGA / EFE

Europar Kontseiluak bilera egingo du berriz izurriari buruz

Urtarrilaren 21ean batzar bat egingo dute estatu kideek erakundearen abaroan, lankidetza indartzeko asmoz

BRUSELA • Europako estatu kideek bilera egingo dute datorren urtarrilaren 21ean, COVID-19aren aurkako lankidetza zehazteko. Horren berri eman zuen atzo, Europar Kontseiluko lehendakaritzako bozeramaile Barend Leytsek. Bilera telematikoa izango da.

Estatuburuek eta presidenteek, eta Europako Batzorde eta Kontseiluko lehendakariek egin zuten azken bilera duela hilabete izan zen, iazko abenduaren 10ean eta 11n. Orduko hartan osasun krisiari elkarrekin aurre egiteko konpromisoa indartzen jarraitzeko erabakia hartu zuten, batez ere joan-etorrien murrizketei begira. Azken bileratik hilabetera, ordea, datuek ez dute bilakaera onik izan kontinentean; are gehiago, kutsatzeen kurbak gora egin du kontseiluko estatu gehienetan.

Europako Batzordeak BioNTech-Pfizer farmazeutikaren txertoaren 300 milioi dosi berri erosiko dituela jakinarazi duen egun berean eman du bileraren berri Europar Kontseiluak. Izan ere, txertaketa kanpaina abian da Europako estatu kideen artean; erosketa berri horrekin, aurretik hitzemandako txerto kopurua bikoiztu du kontseiluak, eta 600 milioi dosi izango ditu estatu kideen artean banatzeko. Ursula Von der Leyen lehendakariak aurreikusi du uztailerako 75 milioi jada banatuta egongo direla. Horrez gain, asteon bertan jaso du Modernaren txertoak Sendagaien Europako Agentziaren onespena, eta beste aukera bat izango da orain txertaketa kanpainak osatzeko.

PCRak egiteko deia egin diete osasun agintariek Mundakako herritarrei

MUNDAKA • Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetzak PCR probak egitera deitu dituzte Mundakako (Bizkaia) 6 urtetik gorako biztanleak, izurriaren zaintza eta kontrol lanen barruan. Mundakako baheketak bat egin du Bermeok (Bizkaia) atzo abiatu zuenarekin; hori dela eta, Mundakako biztanleek ere alboko herrian prestatutako eremuan, Bermeoko Artza udal pilotalekuan, egin beharko dute proba.